

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Benantzia Iraola Arruti

*Donostia,
Gipuzkoa
(1923-2017)*

Aurkibidea



Biografia



Igeldoko Aristondo baserrian jaio eta bizi izandakoa. Igeldora joan zen eskolara, baina gutxi. Aita biriketako gaitzarekin hil zitzairen, 11 urte zituenean. Anai-arrebetako batzuk ere gazte hil ziren, eta lau senide irten ziren aurrera. Besteak beste esnea partitzen ibili zen. Aizarnazabalera ezkondu zen, eta bi seme izan zituen, baina gazte alargundu zen, eta Aristondora itzuli. Baserria nekazal turismoko etxea zen elkarrizketa garaian, eta seme zaharrena zen arduraduna.

Zintak

DON-065

- **Proiektua:** Donostiako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2009-11-20
- **Iraupena:** 70 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiolea, Nerea

Pasarteak

1. Hiletako aurreko arrosarioa

- **Erref:** DON-065/004
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:12:09. **Bukatu:** 00:14:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:

<p>Aita hil zenean inguruko jende asko etorri zen etxera arrosarioa errezatzen gauean. Lehen etxean errezatzen zen gerora elizan egiten dena. Gau guztian argia piztuta izaten zuten gorpua etxean. Kutxa bizkarrean eramaten zuten elizara lau lagunen artean, askotan txandakatu egiten ziren bide luzea izanez gero elizara.</p>

Transkripzioa

- Norbait hiltzen zanian, errosariyua-ta errezatzen zan?
- Bai.
- Bere onduan?

- Bere ondon. Jendia asko etorri ta errosariyua han, hor behian, Iribarko gizonak, Joxe Ramonek, errosariyua errezatu zun [...]. Ta jende asko etortzen zan gabian. Elizan oain iten duen /iteuen/ bezela entierron aurretik, [...] lehen oiten zan etxian errezatu, iluntzian, ordu bat jarri ta.
- Eta gero, gaua pasatzera ere...
- Gaba pasatzen ´e argiya piztuta hantxe egoten zan. Ez zan oain bezela itzalita egoten. Batebat hantxe egoten zien.
- Eta gero, elizara eramaten zan kaja?
- Bizkarrian eramaten zan. Lau lagunek hartu ta, hola, bidekutzian... bidekurtzia dan lekuan, ezin baldin bazun batebatek, txanda iten zitzaion, ta gora dana bizkarren eramaten zan.
- Hemendik elizaraiño asko dao? Asko ibili behar da? Zenbat denbora tardatzen da hemendik elizara?
- Behetik gora dao ta segun... Igual “raka-raka-raka-raka” juteko, bastante. Ez dakit /eztakit/ zenbat egongo dan /eongoan/. Guk azkar asko jun bihar izaten gendun mezetaa behintzat, batzutan iya ituan juten giñan ta. Mezetaa jun bihar izaten gendun ta.
- Oso goiz izaten zan meza?
- Ez, zazpi t´erditan egoten zan, ta zazpi t´erditako mezetaa juten giñan.

2. Eskola gutxi, katona baino ez

- **Erref:** DON-065/005
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:14:07. **Bukatu:** 00:16:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Igeldoko eskolara joan zen neska koskorretan, baina oso gutxi joan omen zen. Katona baino ez zuen ikasi justu-justu. Ahizpa zaharrena eskola partikularretara ere joaten zen arratsalde. Eskolabetako ikastetxean ere urtebete egin zuen. Ez zuen ikasi ezta bere izena idazten ere, etxean ikasi zuen hori ere.

3. Aita hil osteko neurriak, etxekoak ez kutsatzeko

- **Erref:** DON-065/006
- **Iraupena:** 0:03:37. **Hasi:** 00:16:35. **Bukatu:** 00:20:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Osasun-zentroak

Laburpena:

Aita hil zenean, logelako gauzak eta altzariak erre eta fumigatzailea etorri zen etxera. Antza denez, aitaren gaixotasuna kutsakorra zen-eta. Amari eta lau umeei txertoa jarri zien badaezpada ere. Bere nebak eta ahizpa badaezpada ere umeen ospitalean izan zituzten. Jaietan eta ostegunetan joaten ziren ospitalera bisitatzen. Bertako umeak urdinez janzten zituzten.

4. Ama esne partitzen eta bera eltzea zaintzen

- **Erref:** DON-065/008
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:20:26. **Bukatu:** 00:22:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

Laburpena:

Amak esnea partitzen zuen astoz, Benantziak amak sutan jartzen zuen eltzea zaintzen zuen bitartean. Beti jaten omen zuten babarruna. Patata-tortillari arrautza gutxi botatzen zien. Hori izaten zen beraien ohiko bazkaria. Antiguana banatzen zuen esnea amak. Ez zen plazara joaten, Antiguako dendetan banatzen zuen.

5. Belarretan behiei jaten emateko

- **Erref:** DON-065/009
- **Iraupena:** 0:03:12. **Hasi:** 00:22:28. **Bukatu:** 00:25:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak

Laburpena:

Egunean hirutan ematen zitzaaien jaten ukuiluko behiei. Belar sortak bizkarrean ekartzen zituzten lepotarrean. Lepotarra otar handi bat da. Benantzia bera era aritzen zen moztan. Aita gaixo zela sokan lotuta ekartzen zuen ahizparekin batera, ahal zen moduan egiten zuten ez baitzuten gurdirik.

6. Belar meta nola egin

- **Erref:** DON-065/010
- **Iraupena:** 0:03:06. **Hasi:** 00:25:40. **Bukatu:** 00:28:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak
- Baserria » Baserriko lanak

Laburpena:

Belar metak ere egiten zituzten etxean. Ahizpa zaharrenak 10-11 urte zituenerako egiten zituen metak eta Benantziak belarra botatzen zion. Gerora, bera ere aritu zen egiten eta nahiago du hori botatzen aritzea baino. Meta ondo nola egin behar den azaltzen du, bestela erori egin daiteke-eta. Batzuk zaku bat jartzen zuten muturrean, bestela metari goitik behera lau egur jartzen zitzaizkion zintzilik lazo bat bezala sokari helduta.

7. Behientzako erremolatxa

- **Erref:** DON-065/011
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:28:46. **Bukatu:** 00:30:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserrria » Baserriko lanak

Laburpena:

<p>Etxean arto eta babarrun asko zuten. Behiei emateko erremolatxa izaten zuten. Arbia ere landatzen zuten. Igitaiarekin txikitzen zuten erremolatxa eta lastoarekin nahastuta ematen zien behiei. Erremolatxa maiatzean ereiten da, artoaren garaian. Artoa eta babarrunari moduan jorratu eta aitzurrarekin belarra kendu behar zaio.</p>

8. Artoa ezin eho; morokila esnearekin jan

- **Erref:** DON-065/012
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:30:25. **Bukatu:** 00:31:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Baserrria » Baserriko lanak » Artoa

Laburpena:

<p>Arto asko ereiten zuten oiloentzako. Oiloek ez zuten beste ezer jaten, ez pentsurik, ez ezer. Talo gutxi jan zuten beraienean; miseria handia zegoen eta makina txiki batean txikitzen zuten artoa, morokila egin eta esnari hura botatzeko. Esne gutxi gastatzeko, esnea egosi ostean, hori botatzen zioten.</p>

9. Meta barruan ezkutatutako babarruna usteldu zitzaien

- **Erref:** DON-065/013
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:31:32. **Bukatu:** 00:32:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Artoa eta babarruna estatuari entregatu behar izaten zitzaion. Garoa itsaso ondotik ekartzen zuten, behiei lo egiteko ohea egiteko. Beraiek meta barruan ezkutatu zuten babarrunez beteriko kutxa bat. Baina ura sartu eta dena usteldu zitzaien.

10. Espainiar bandera leku askotan jarri behar

- **Erref:** DON-065/015
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:34:10. **Bukatu:** 00:35:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

Gerra bukatzerakoan espainiar bandera jarri behar izan zuten hainbat tokitan: goiko ganbaran makila batekin, astoaren otarrean, berokiaren botoian... Igeldon soldadu asko zegoen eta ikara asko pasatu zuten.

11. Gerran hildako igeldotarrak

- **Erref:** DON-065/018
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:39:14. **Bukatu:** 00:41:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Laburpena:

Igeldotik ez zuen inork alde egin gerran. Horietako asko kartzelara eramaten zituzten. "Mutua" kale-garbitzailea ere fusilatu egin zuten, beste batzuen artean. Frontean ere hainbat hil ziren. Horietako hainbat aipatzen ditu Benantziak.

12. Olorik ez eta irina ere gutxi

- **Erref:** DON-065/019
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:41:13. **Bukatu:** 00:43:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Baserría » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:

Gerra ondorenean bizimodua asko aldatu zen. Dena kentzen zieten eta jateko errazionamendua zuten. Ez zuten olorik eta esnearen esnegaina erabiltzen zuten. Orduan ez zuten uste inoiz lehengora bueltatuko zirenik. Bere amak Errotazarretik ogi pixka bat ekartzen zuen. Artoa ere Errotazarrera eramaten zuten irina egiteko, baina zati handia kentzen zien bertan. Horregatik hasi ziren etxeko makinarekin morokila egiten.

13. Ahizparen ezpainetako soinuarekin dantzan

- **Erref:** DON-065/021
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:43:23. **Bukatu:** 00:44:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia

Laburpena:

<p>Domeketan ez zuten dantzaldirik Igeldon. Arbolan soka bat jarri eta kolunpioa egiten zuten eta bertan egoten zen neska-kuadrilla. Bere ahizpak ezpainetako soinua jo eta orduan egiten zuten dantza.</p>

14. Dantza lotua gaizki ikusia zenekoa

- **Erref:** DON-065/022
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:44:24. **Bukatu:** 00:46:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Dantza lotua gaizki ikusia egotea gerra ondorengo kontua dela dio. Konfesatzera ere joaten ziren eta ea dantzan zein asmorekin egiten zuen galdetzerakoan, ondo egiteko asmoarekin egiten zuela erantzuten zuen Benantziak. Berak ez zuen aparteko arazorik izan. Kongregazioko neskek ezin zuen dantzarik egin. Lepoan zinta zuria zuena kongregaziotik botatakoa zen. Gainerakoek zinta urdina eramaten zuten.

15. "Gustua ematea bekatua zen"

- **Erref:** DON-065/024
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:46:56. **Bukatu:** 00:48:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

Irubidera joaten zirenean dantzara, mutilak asko arrimatuz gero, bultza egin eta apartatu egiten ziren. Mutilek etxera laguntzen zien neskei. Denetarikoa mutilak zeuden. Gustua ematea bekatua zela dio.

16. Kongregazioak eta apaizak

- **Erref:** DON-065/025
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:48:23. **Bukatu:** 00:50:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Dena konfesatu behar zuten. Mutilak San Luisen kongregaziokoak ziren, Luistarrak, eta hilero joan behar izaten zuten konfesatzera. Neskak, aldiz, Mariaren alabak ziren. Elizan batzen ziren apaizarekin. Bi apaiz egon ziren Igeldon: don Basilio eta don Miguel.

17. Astoarekin Antiguara esnea partitzen

- **Erref:** DON-065/032
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 01:05:11. **Bukatu:** 01:06:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

Laburpena:

Amak sukaldeko lanak egiten zituenean, Benantzia Antiguara jaisten zen astoz esnea saltzera. Amak lehenago eramaten zituen denda berberak izaten zituen bezero. Neba Lizarriturriko lantegira joaten zen.

18. Dirua medikutan gastatu eta zorrak pilatu

- **Erref:** DON-065/033
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 01:06:28. **Bukatu:** 01:09:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak
- Ekonomia eta industria » Txanponak, diru-kontuak

Laburpena:

Irabazitako dirua medikutan gastatzen zuten eta zorrak egin zituzten. Txekorra hiltzerakoan pentsu-biltegian zuten zorra kitatzen zuten. Harakina lehenago joaten zen etxera.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-06-14

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com